

Bixente Serrano Izko

Elkar ikusezinak

Buruan bueltaka nenbilela euskarazko saiakeraren genero literarioan usu den gabezia batez, hara non Anjel Lertxundik *Berriako* bere txokoan *Inexistentzia* izenburuko zutabea eskaini zigun otsailaren 8an: “Txillidari, Oteizari edo iniziatiba plastiko esanguratsuenei buruzko hemengo lan akademiko gehienek ez dute aintzat hartzen euskaraz idatzitakoa”. “Balirudike euskaraz ez dakiela deus euskal arteaz”. Erdarazko saiakereaz ari da, mingots eta arrazoiz.

Berehala iruditu zitzaidan zeharka izanik ere bazuela ideia horrek loturarik buruan zebilkidan bertze harekin: alegia, zein gutxitan aipatzen dioten elkarri euskarazko gure saiakeragileek, bai behintzat hizkuntzalaritza edo literaturgintza aztergai hartzen ez duten gainerakoetan: antropologia, etika, filosofia, etnologia, filosofia politiko, ingurumena, globalizazioa, ekonomia... hainbat eta hainbat arlotan. Urria da, oraingoz, saiakeren produkzioa euskaraz arlo unibertsal horietan, gure hizkuntzaren egoera diglosikoaren isla. Baina beren urrian, badugu saiakeragile ugari arlo frankotan. Bada, deigarri suertatzen zait bertze pentsalari edo idazleen mintzoak nork bere harira ekartzerakoan, erruz agertzen direla bertze hizkuntzetako idazleen aipuak, zenduenak ala aktiboenak, eta nekez, aldiz, euskaraz zerbait idatzi dutenenak dagokion gai edo hariari buruz. Eta, gutxi horietan, edo zenduen aipuak dira, edo gure artean halako ikono bihurtu diren bizpahirurenak, edo saiakeragile bakoitzaren inguru estuko lagun batenak. Balirudike euskaraz ez duela deus jakin gai unibertsal horietaz, saiakeragile bakoitzak bere ekarpena egin arte. Badago salbuespenik, eta arestiko nire irakurketetako bat aipatu nahi dut gustura: Jasone Mitxelorenaren *Auzolanaren kultura* alegia, non bai erdaretaiko bai euskarazko ekarri anitz aipatzen den.

Zergatik ote? Elkarri irakurtzen ez diotelako? Sinestezina. Edo, akaso, Hernandez Abaituak bere *Narrazio tailerran* dioenarengatik: “Zer gaineratu dio literatura unibertsalari munduan euskal idazle ezagunena den Bernardo Atxagak? Ezer ez [...]”. Eus-



JOSU SANTESTEBAN

kal Literaturaren Historiara pasatu da, baina ez Literatura Unibertsalaren Historiara?”. Hau da, gure arlora joanik, ez dagoelako euskal saiakeragileetan mundura ekarpen propiorik egin duen inor? Zier to, gehienbat, mundu zabaleko bertze pentsalari edo idazleen ideiak euskarara ekarri baizik ez dute egin, politago edo zabarrago. Holaxe dela erran dezakegu, baina lotsarik gabe: ez da gutxiesteko lana inondik ere, eta horrelakoak behar ditugu.

Edo maltzurrago pentsatu beharko? Izanen ote da saiakeragileek euren baitan dara-

« Bada, deigarri suertatzen zait bertze pentsalari edo idazleen mintzoak nork bere harira ekartzerakoan, erruz agertzen direla bertze hizkuntzetako idazleen aipuak, zenduenak ala aktiboenak, eta nekez, aldiz, euskaraz zerbait idatzi dutenenak dagokion gai edo hariari buruz »

maten nartziso txiki-handi horrengatik? Erran nahi baita, nork bere burua ferekatu nahi duelako ote da, norbera izanen bailitzan dagokion arloko ideiak mundutik gurera ekarri dizkigun lehena?

Dena den zergatia, deitoratu baizik ezin dut egin jokamolde hori, bi arrazoiengatik. Bata, euskarazko saiakeren irakurle gisa, interesatzen zaidalako jakitea bertze inork idatzi duen ala ez euskaraz eskuartean dudan gaiari buruz edo horrekin nola edo hala loturik dagoen zerbait. Eta bigarrenik, euskal komunitaterik eraiki nahi badugu, hiztunona ez ezik, pentsalariena, saiakeragileena ere egin beharko liguketelako ikusgarri idazleek beraiek euren lanean: nahi ala ez elkarrekiko euren sinpatia, inbidia, amodio, gorroto edota ezinikusiekin, beraiek eratzen doazen euskal pentsalarien komunitatea zergatik ez egin ikusgarri? ■

